

Aretxagazeta



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Arana kalea
itxura berritua /8**

HURRETIK
**Olaz Pagaldai,
Gaztekantoiko begiralea /9**

LEINTZ GATZAGA
**Hiru gatzagar Saharako
kanpamenduetan /10**

Erretiroa hizpide

Gizartea gero eta zaharragoa
ei da, gazte gutxi eta jubilatu
ugari. Hirugarren adinekoak
protagonista izan diren
asteen Basotxo Erretiratuen
Elkartek ere batzorde
aldaketa egin du.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiat)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 13
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 14
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 85 83

OHARRAK

BERTSO AFARIA LARRINOKO ELKARTE GASTRONOMIKOAN
Apirilaren 20an (zapatua), bertso afaria egingo dute Larrinoko San Kristobal elkarteak. Bertsoetan Imanol Lazkano eta Joxe Agirre ibiliko dira. Joan gura duenak esan diezaiola Daniel Uribetxebarriari.


2002. URTEKO UDALEKUETAN BEGIRALE IZATEKO IZENEMATE EPEA BUKATZEAR DAGO

2002. urteko udaleku irekietan begirale gisa lan egin gura duenak apirilaren 15era arte dauka izen emateko aukera. Curriculuma kultura etxera eraman behar da. Posta elektronikoko bidez ere egin daiteke izenematea, kultura@aretxabaleta.net helbidera mezua bidalita.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Intsumiso bat atxilotu, eta kartzelara eramán zuten


Julen Larrinaga intsumisoak egun osoa igaro zuen kartzelan orain dela zortzi urte. Julenek uko egin zion soldadutza egiteari, eta ondorioz, atxilotu, eta epailearen aurrean azaldu arte kartzelan egon zen. Juleni epaiketa hartan urtebeteko kartzelazigorra ezarri zion epaileak.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pendiza"

Aldapa handia, zeharo bertikalak izan gabe; desnibela bertikalak bada, muga edo muna. *-Pendizian einda dare Plazentziako basarri geixienak. Eztauke solo laurik, dana da pendiza.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Edale santuaren kondaira'

Parisko zubipean bizi den Andreas arlote mozkorrari egun batez mirari moduko bat gertatuko zaio, gizon batek 200 libera ematen dizkionean. Andreas ohorezko gizona izaki, diru hori berriz bueltatzekotan hartuko du, eta meza ondoren eman beharko dio apaizari diru hori. Andreasen asmoa ona da, baina beti egongo da oztoporen bat dirua bueltatzekoan. Nobela labur edo ipuin luze bat duzue honako istorio hau. Joseph Roth idazle austriarrak idatzi zuen liburua, 1939an, eta haren azken lana izan zen. Joseph Roth bera ere alkoholismoak jota hil zen, eta badirudi premonizio modura idatzitako ipuina dela.

EDALE SANTUAREN KONDAIRA



EDALE SANTUAREN KONDAIRA

Joseph Roth
Igela
95 orrialde

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Oskar Blázquez
Martxoaren 16an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA
Maialen Gay
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA
Maite Carriet
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA
Ariane Aguilera
1ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Markeliñe Mendieta
Apirilaren 6an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
June Errasti
9an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Josune Blanco
11n. Zorionak, gurasoen eta Nekane eta Joseba lehengusuen partetik.



ARETXABAETA
Maritxu Anduaga
11n. Zorionak eta muxu bat, iloba guztien partetik.



ESKORIATZA
Luz Mari Ignacio
13an. Zorionak eta muxu bat, Akeitako lagun guztien partetik.



ARETXABAETA
Aitziber Arrese
14an. Zorionak eta muxu bat, lehengusu guztien partetik.



ARETXABAETA
Endika Martín
14an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Markel Uriarte
14an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Lierni Castilla
15ean. Zorionak eta muxu handi bat, tia Inman partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda


HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABAETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK



Beti karreteka edo albuma dohanik !!

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Zelako jubilaziñue eukittie espero dozu?



MARIA ESTHER DIÉGUEZ
Langillie

INAXIO GARRO
Langillie

AITZIBER ARRESE
Langillie

JON KEPA ZUBILLAGA
Langillie

ALAZNE INZA
Langillie

XABIER MENDIZABAL
Langillie

Baltza ikusten dot. Lehen esaten geuen jubilaue arte egin biherko geukiela lan; oin, hori be ezin esan. 65 urte baiño nagusixagoñan lan egittie ez jat ondo pen-tsetan. Eta disfrutau, noix?

Ahal dan bizkorren eta osa-suntsuen jubiletie. Hori gureko neuke. Panoramie ikusitte, 65 urtekin jubilaue ezkerro konformauko nitza-ke, oin badago-eta luzetuko dauen zurrumurrue.

Guri beranduago aillegau-ko jakula pentsetan dot; 55 urtekin jubiletie ez legoke txarto. 65etik gora lan egi-tteko gai izengo garen be ez dakit, eta gaztiei be itxi biherko dutzegu tokixe.

Pentsau be ez dot egitten jubilaziñuen. Loterixien zain nau eta bestela, dato-rrena datorrela. 90 urtekin txikituek saltzen ibili biher-ko dogu igual, eta edateko moduen bagaz edarto!

Gaur daguenaren oso dife-rentie izengo dala uste dot, eta ez dakit zelan egongo ga-ren, ezta eukiko dogun edo ez be. Goix jubiletie gus-tauko litxakit, baiñe erre-alidadie ikusitte, ez dot uste.

65 urtekin edo lenau jubi-letie gureko nauke. Bai osa-sun aldetik bai diru aldetik jubilaziño dotorie izen ezke-ro edarto! Kanpotik jentie badator nik uste dot ez dala hainbeste arazo egongo.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK URKULU, ZIKIN Udaberria heldu da eta eguraldi onak jende ugari ekarriko du Urkulura. Hori ez da, ordea, Urkulu zikin egoteko aitzakia: paperak han eta hemen, kondoiak belar gainean... Zikinkeria ugari. Nahiz egunez nahiz gauez hurreratu urtegi ingurura, errespetatzen dezagun eta garbi egon dadin saia gaitzen. Ez da hainbeste kostatzen, eta denok eskertuko dugu. /M.A.

ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA / 4

ASTEAN BEHIN / 5

KIROLAK / 6

Luis Beltran de Heredia

Basotxo erretira-tuen elkarteak batzorde aldaketa egin du astean. Luis idazkaria izan da orain arte.

Unai-II proiektuko berriak

Hiruatz Elkarteak aspaldi bukatu zuen Indian Unai-II proiektua, eta orain jaso ditu azken berriak.

Squash Txapelketa

Apirilaren bukaeran hasi eta ekaina arte iraungo du Squash Txapelketa, kirol etxean.

ASTEKO DATUA

1.012

LAGUN DAUDE 65 URTETIK GORAKOAK ARETXABALETAN

Nahiz eta askok erretiroa 65 urte baino lehen hartu, adin nagusi-koak 65 urtetik gorakoak direla dio Ongizate Sailak. Aretxabale-tan 1.012 herritar dira 65etik gora-koak, 564 emakume eta 448 gizon.


BESTE EKESANA

“ Martxoaren 25ean e-debagolena egitasmoa aurkeztu zen Leintz Gatzagako Gatz Ekomuseoan. Han izan

ziren proiektu honen bultzatzaileak, entitate publikoak Eusko Jaurlaritza eta Mankomunitateko ordezkariak, eta bestetik, Mondragon Unibertsitate, MCC, Goiena komunikazio zerbitzuak eta Euskaltel enpresa pribatuko ordezkariak. Guztiek informazioaren gizar-tean proiektu telematikoa honek izango duen garrantzia azpimarratu zuten. Proiektu honek zertan datzan ezagutzeko ordea, Goienak programa berezia eskaini zuen egun horretan bertan GOITB telebistan. Saioa Maria Agirrek zuzendu zuen, eta gonbidatuak hauek izan ziren: Guillermo Irazoki, Iban Arantzabal, Mikel Irizar eta Jabier Retegi.

IRATXE BENGOA
Sustatu.com/02-03-27

HERRITARREN BERBAK / Aitor Agiriano



Dohain berezia

Kaixo, irakurle, hemen natorkizu agian hurbilekoa duzun kontu baten inguruan hiruzpalau lerro idazteko aldar-tearekin.

Zenbait pertsonok, beste askok ez bezala, egutegiari edota kukuaren etorrerari edota erretiroa gabe udaberriaren hasiera sumatzeko “dohain berezi” bat dugu. Berezia diot, ez delako broma. Izan ere, trantzean sartzen den azti edo igarlearen pare, begiak gorritu, lausotu eta mindu egiten zaizkigu, normala ez dirudien gorputzaldian sartuz... eta urrun gabe, doministiku andana ikaragarria dator... koñoño... udaberria iritsi da eta!

Udaberriak berarekin dakartza alergiak. Erreakzio anormaltzat jotzen badira ere, polenaren ondorioak jasaten ditugunok ez gara bi, hiru edota lau. Makina bat lagun gaude uztarri berean lotuta. Badirudi gainera, betiko. Buruhaustek asko eta erre-me-

dioak gutxi!

Urteroko egoera honen aurrean hiru bat aukera ditugu: batetik, medikuen aholkuei jarraitzea, bestetik, sasi-medikuei kasu egitea, edota hirugarrena. Hirugarrena, egia esan, ez dakit zein den; baina egon behar du hiruga-

erren aukera batek ere! Zeren medikuen pastilla, sudurrera-ko esprai edo botikek logura eta bestelako ondorioak besterik ez dakartza-te eta sasi-medikuen inguruan gauza ziurrik bat ere ez! Bateko polena eta beste-ko ez-tia jateko

esan izan dute baina polenak lehen ere gaitz egiten digula jakinda, jatea, norberaren buruari harriak botatzea litzateke.

Etxetik ahalik eta gutxien irtetea gomendatzen dute, baina ezin egongo gara egun osoa barruan. Gorputza bera ohitu beharko da kanpora, eta bitartean, ba... begietan azkura izanez gero, igurtzi, eta mukiak berriz, kendu eta kito! Zer egongo dugu bada?

“Etxetik ahalik eta gutxien irtetea gomendatzen dute, baina ezin egongo gara egun osoa barruan”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritza
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatza
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ELKARRIZKETA

LUIS BELTRAN DE HEREDIA/BASOTXO ERRETIRATUEN ELKARTEKO IDAZKARI OHIA

*“Erretiratu asko dago bai gaitasun aldetik
bai gogo aldetik lanean jarraituko lukeena”*

MIRARI ALTUBE

Adin nagusikoak protagonista izan diren aste honetan, Basotxo erretiratuen elkarte-ko batzordea aldatu egin dute. Lau urtean lanean ibili ostean, eguenean, agur esan zion idazkari karguari Luisek.

Zenbat bazkide ditu Basotxo erretiratuen elkarteak?

Gutxi gorabehera, 750 izango gara. Horiei, ordaintzen ez duten bazkideak gaineratu behar zaizkie, ehunen bat. Gizonak gehiago direla esango nuke, nahiz eta gaurko gizartean emakume nagusiak gehiago izan. Basotxora gizonak etortzen dira bazkide izateko izena ematera, eta alargunek ez daukate ohiturarik.

Basotxon hainbat ekintza antolatzen dituzue; zelakoa da parte hartzea?


Nahiko kaskarra. Astelehenan izan zen elikaduraren eta osasunaren gaineko berbaldian jende pilotxo bat zen, baina ez da ohikoa. Jeneralean, ez da egoten hogeitaz lagun baino gehiago.

Urterik urtera bazkide gehiago dagoela ikusten da?

Ez, ez da askorik aldatzen. Lehen, gutxitu egiten zen kopurua urterik urtera: kuota eskuan ordaintzen zenez, askori ahaztu egiten zitzaion ordaintzea. Orain, banketxetik pasatzen dugu. Hildakoak eta bazkide berriak kontuan hartuta, kopuru bertsua izaten da. Dena dela, gero eta jende gutxiago hurreratzen da Basotxora. Ile apaindegia eta podologia zerbitzua jarri gura genituen, bizitasuna emateko elkarteari, baina Udalak ez du interesik jarri eta ez da ezer egin.

Esaten dute laster beranduago erretiratu beharko dela; zer deritoxozu?

Guk gurea egin dugu, eta orain, atzetik datozenendako izango da arazoa. Hori betetzen bada, guretao dirurik helduko



MIRARI ALTUBE

“Parte hartzea nahiko kaskarra da, normalean ez da egoten hogeitaz lagun baino gehiago”

ez den beldurra uxatuko dugu... Argi dago arazoa izango dela, eta gazte gutxi badago, inmigranteekin konpondu beharko da. Guri, behintzat, ez diezagutela esan berriro lanera joateko.

Urteetan aurrera egitea eta bizi kalitatea batera doazela uste duzu?

“Ile apaindegia eta podologia jarri gura genituen, baina Udalak ez du interesik jarri”

Uste dut erretiratuok nahiko ondo bizi garela. Osasun arazo gutxiago daudelakoan nago, edo beharbada, ez hain larriak. Erretiratu bat baino gehiago dago bai gaitasun aldetik bai gogo aldetik lanean jarraituko lukeena. Badi-rudi laster aukera izango dutela horretarako.

“Erretiroa da ezer ez egiteko, oporrak hartzea bezala. Nahiko lan egin dugu orain arte”

Gizartean gehiago parte hartu behar duzuela ere esan da...

Gehiago parte hartu? Erretiroa da ezer ez egiteko, hau da, oporrak hartzea bezala. Nahiko lan egin dugu orain arte; hortaz, hemendik aurrera lasai-lasai bizi izatea tokatzen zaigu.



BESTEAKBESTE



M. J. Aretxaga

Operazioz beteta

Operación policial, operación triunfo, operación bikini... pil-pilean dauden berbak dira. Ez dute ez bata bestearekin zerikusik, baina guztiek hitz bera erabiltzen dute. Gaurkoan bigarrenari helduko diot, urteko fenomeno eta protagonista izan den Operación triunfo saioari. Herrian saioaren eta bertako abeslariaren jarraitzaile sutsuak ditugu, eta horietako batzuk Gasteizen izango den kontzertura joango dira datorren zapatuan. Sarrerak justu-justu lortu ei zituzten, izan duen arrakasta eta gero, berehala agortu baitziren. Beste batzuk ez dute zorte bera izan. Hauek agian operación bikiniarekin konformatu behar...

Egunotan pil-pilean dagoen beste gai bat Saharan egin den emakumeen kongresua izan da. Han ere izan da Aretxabaletako emakumerik, **Lourdes Llodio** eta **Ainhoa Garai** egon ziren bertan. Esperientzia aberasgarria bizi izan dute. Gure herriko emakumeak ere ez dira geldi egotekoak gero, ondo egiten dute.

Beste emakume bat ere aipatu behar dut jarraian. Kultura sailean langile berria hasi da lanean. **Anabel Diaz** oñatiarra da bera, eta Inma Migelekin batera herriko kulturaz arduratuko da. Ongi etorri lan berrira!

**EGUSKIGRAF**

inprimategia

liburutxoak, sobreak, pegafinak, kalendarioak, kartak, fakturak, poltsak, tarjetak, katalogoak, triptikoak, publizitatea, jai egitarauak, kartelak, albaranak, aldizkariak, errekor-datorioak,

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

Araba Ibilbidea

20550 ARETXABALETA

Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941

info@eguzkigraf.com

1980tik zuen zerbitzura

ARTANO akaitegia

Gosariak
goizeko
7:00etatik
aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

GIZARTEA/ Inazio Galdosek bidalitako txostenean eskerrak ematen dizkie aretxabaletarrei

Unai-II proiektuaren azken berriak jaso ditu Hiruatxek

MIRARI ALTUBE

Iaz, irailean, eman zuen bukatutzat Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeak Indian zuten Unai-II proiektua. Edoze-lan ere, hantxe dagoen Inazio Galdos jesuita aretxabaletarra azken txostena bidaltzekotan geratu zen. Eta txosten hori heldu da dagoeneko.

Hiruatxek 1999ko uztailean jarri zuen abian Indian Unai-II / Iraul-tza Zuria proiektua. Helburua Gujerat lurraldean bizi diren adivasiei laguntzea zen, eta zortzi milioi eta erdi pezeta batu zituzten. Proiektua iaz, irailean, bukatu zen, baina azken txostenaren zain zegoen Hiruatx, eta esku artean dauka dagoeneko.

ESNE BUFALAK, 'JEEP'-A ETA BILTEGIA
Indiako Gujerat lurraldean bizi da Inazio Galdos misiolari aretxabaletarra. Hogei urtetik gora daramatza Inaziok adivasiekin, Indiako leinurik baztertuenarekin. Hiruatx elkartearen eta adivasien arteko bitartekari lanak ere hark egin ditu, eta aretxabaletarren dirulaguntze-kin aurrera eroan den bigarren proiektua izan da Iraul-tza Zuria.

Azken proiektu horren helburua 120 familia behartsu esne bufal banaz hornitzea zen, umeak, haurdun dauden emakumeak eta bularra ematen ari direnak behar bezala elikatu ahal izateko. Era berean, esne

Aretxabaletarren dirulaguntze-kin aurrera eroan den bigarren proiektua izan da

Familien elikadura hobetzeaz gainera, askok idazten eta irakurtzen ere ikasi dute

Agintariak oso pozik azaldu ziren esne kooperatibak Gujeraten izan duen eragina ikustean

kooperatiba bat abian jarri gura zuten. Bufalez gain, jeep-a erostea eta biltegi eta batzar gela izango den 160 metro koadrotik gora dituen eraikin egitea ere lortu dute. Hango bizilagunek, bestalde, prestakuntza jaso dute, lide-

rrak sortu eta euren kabuz jarduteko gai izan daitezten.

TXOSTEN ZEHATZA

Txosten zehatza bidali du Inaziok Indiatik: bufalek urtean emandako litro esne kopurua, Gujerateko ume osasuntsuen kopurua 1999tik hona, eta bukatzeko, errupiaz errupia dirua zertan erabili den zehaztu du. Esne bufalak jaso dituzten lau lagun iritziak ere jaso ditu Inaziok. Oso pozik azaldu dira laurak, bizimodua erabat aldatu diete eta bufalek. Izan ere, familien elikadura hobetzeaz gainera, askok idazten eta irakurtzen ere ikasi dute, eta horrela, esne kooperatiba behar bezala zuzentzeko gai dira.

Indiako gobernuaren laguntza ere jaso dute adivasiek, bai esne bufalak erosteko orduan, bai albaiteroen zerbitzua eskaintzerakoan ere. Agintariak oso pozik azaldu ziren esne kooperatibak Gujerat hegoaldeko lurraldean izan duen eragin onuragarria ikusterakoan.

Inazio Galdos ere oso pozik dago aretxabaletarrendik jasotako laguntzarekin: "Adivasien bizimodua erabat aldatu da, lanerako gogoarekin jaikitzen dira eta erabakiak taldean hartzen ere ikasi dute. Lehen, patuaren eskuetan uzten zuten bizitza, eta orain, berriz, euren eskuetan dagoela ikusi dute eta seme-alabei etorkizun hobea eman gura diete". Inazio Aretxabaletan izango da maiatz inguruan.

TXUTXUMUTXUA



Aberri Egun bateratua gure herrian

Martxoaren 31n ospatu zuten Aretxabaletan ere Aberri Eguna. Gurean, osteran, besteetan ez bezala, Aberri Egun bateratua izan zen, herrian zeuden abertzaleek batera ospatu zuten eta eguna. Ikurrinari agurra eta alkateak egin zuen Aberri Eguneko mezuaren irakurketa izan ziren ekitaldi nagusiak. Luncha ere egon zen ospakizuna bukatzeko. Eguerdian, bestalde, hogeita hamarren bat herritar batu ziren Matikua jate-txean, egunak eskatzen zuen moduan bazkaltzeko. /M.A.

LABUR

Eskualdeko hainbat emakumeekin batera bi aretxabaletar izan dira Saharan

Aste Santuetako oporrak aprobetxatuta eskualdeko hainbat emakume izan dira Saharan. Emakumeen inguruko biltzarra antolatuta zuten Saharako emakumeek eta bertakoez gain mundu guztiko 600 bat emakume batu ziren. Debagoienetik dozena bat inguru joan ziren, tartean bi aretxabaletar Lourdes Llodio eta Ainhoa Garai. Biltzarrean parte hartzeaz gain, Saharako inguruak ikusi eta bertako emakume eta hurrekin egoteko aukera ere izan zuten. Oso pozik itzuli dira guztiak, esperientzia zirraragarria izan da eta.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

REGIADO

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

SQUASHA

Apiriletik ekainera bitartean Squash Txapelketa jokatu da kirol etxean

Izena emateko kirol etxera deitu behar da, eta oraingo martitzenean bukatuko da epea

MIRARI ALTUBE

Udaleko Kirol Zerbitzuak hainbat ikastaro eta txapelketa antolatu ditu aurten. Zapatuan, martxoan atzeratu zen Patinaje Ikastaroa hasiko da eta aste pare bat barru Squash Txapelketa. Martitzenean bukatuko da izena emateko epea; hortaz, azkar ibili.


Ez du egun zehatzik jarri, baina Udaleko Kirol Zerbitzuak apirilean emango dio hasiera Squash Txapelketari, 20an ez bada, 27an. Squashean jokatzeko duten guztiei dago zuzenduta eta Debagoieneko Txapelketa zirkuiturako puntuagarria izango da.

URTEROKO TXAPELKETA

Udaleko Kirol Zerbitzua aspaldi hasi zen Squash Txapelketa antolatzen; azken bost urteetan, behintzat, urtero egin da. Dozena bat squashzale batu izan dira txapelketan, gehientsuenak eskualdekoak, baina bizkaitarrak ere etorri ziren iaz. Aurten ere arrakasta izatea espero du Kirol teknikari Asier Muxikak.

JOKATZEKO HAINBAT ARAU

Txapelketan jokatu ahal izateko ez da beharrezkoa izango federatuta egotea. Hamasei urte beteta izatea baino ez da hartuko kontuan. Sei bikoteko taldeak osatuko dituzte eta lehenengo fasea liga eran jokatu da. Gero, puntu gehien lortu dituztenek kanpo-



UDALEKO KIROL ZERBITZUA

laz izandako arrakasta bera izatea espero du Udaleko Kirol Zerbitzuak.

raketak jokatu dituzte, hau da, final-laurdenak, finalerdiak eta finala. Epailar arbitroa, bestalde, Iñaki Uribebarria izango da.

Taldeak egiteko, aurreko txapelketako sailkapena hartuko dute kontuan. Behin taldeak osatuta, bikote bakoitzaren aurkaria eta egunak zehaztuko dituzte. Zehaztuko dituzten egun eta orduetan jokatu beharko dira partiduetan; ezin izanez gero, beranduenez hurrengo astera atzeratu

ahal izango dira, epailari denboraz esanda. Abisatu ezean, kanpoan geratuko da bikotea.

PALA TXAPELKETAKO FINALURREKOAK
Zapatuan jokatu dituzte, bestalde, Pala Txapelketako finalurrekoak. Irabazleek hurrengo zapatuan (apirilak 20) izango dute finala. Aretxabaletako bikote bakarrak jokatu du Pala Txapelketa, eta lortutako emaitzak ikusita, ez da finalean izango.

PILOTA

Errasti anaiek ezin izan zuten ezer egin Debarroko Pilota Txapelketako finalean

Joan den domekan jokatu ziren Debarroko Pilota Txapelketako finalak. Errasti anaiek ziren sailkatutako pilotari aretxabaletar bakarrak. Bergararren kontra izan zuten partidua, eta 13-22 galdu zuten. Ez zuten egun ona izan Errasti anaiek eta partidu osoan atzetik ibili ostean, bederatzita tantoko alde atera zieten.

TXIRRINDULARITZA

JMA taldeko Jon Lete txirrindulariak Mendijur Memorialeko lasterketa bukatzea lortu zuen

JMA taldeko kadeteek XXI. Mendijur Memorialean hartu zuten parte zapatuan. 46 kilometroko lasterketa izan zen. Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta hasierako 75 txirrindularietatik, 30ek bakarrik lortu zuten bukatzea, tartean Jon Lete mendiolarra.

PILOTA

Urretxuko Eskuz Banakako Txapelketan hartuko dute parte pilotari aretxabaletarrek

Debarroko Txapelketa eta Udaberri Torneoa bukatu dira dagoeneko. Edozelan ere, zapatuan, Urretxuko Eskuz Banakako Txapelketan hartuko dute parte Altubek, Kortabarriak eta Uriartek. Eta apiril bukaeran, Herri Arteko Pilota Txapelketara joango dira.

JOKATZEKOAK

EMAITZAK

FUTBOLA

Hondarribi-UDA
Preferentea.
Zapatua, 16:30. Hondarribia.

UDA-Lengokoak

Gazteen Euskal Liga.
Zapatua, 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxabaletako pilotariak
Gazteak.
Zapatua, 17:30. Urretxu.

FUTBOLA

UDA 1 Pasajes 2
Preferentea.

Gainerako taldeek jai izan zuten aste bukaeran.

PILOTA


Debarroko Pilota Txapelketa Bergara 22 Aretxabaleta 13
Seniorrak.

Gainerako bikoteek aurretik bukatu zuten bai Debarroko Pilota txapelketa bai Udaberri Torneoa.

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



*Hirusta
Jatetxea*

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19
Basabe, 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

**J.J.
IRURE**
ITURGINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

ERRETRATUZHARRA

Pilotariak eta abadeak, elkarren aurka

Argazki zahar hau 1959. urteko apirilaren 12an ateratakoa da, orain dela berrogeita hiru urte, hain justu ere. Orduan, gaur egun moduan, pilotan egiteko zaletasun handia zegoen gure herrian. Zaletasuna, gainera, ez zuten mutil gazteek bakarrik; izan ere, abadeek ere ezin hobeto egiten zuten pilotan. Inguruko abade eta parrokoek seminarioan egin zituzten ikasketak, baina han, antza, ez zuten Kristoren bizimoduaren gaineko eskolak bakarrik ikasi; pilota astintzen ere ondo baino hobeto ikasi zuten. Horrela, 1952. urtean, Gregorio Gabilondo sakrista-urari omenaldia egiteko, pilota partidu mundiala antolatu zuten. Erretratuan agertzen diren lau lagunak elkarren aurka aritu ziren. Batetik, abadeak, Bitoriano Aranburu (Aretxabaletako parrokoa) eta Mikel Etxebarria (Mendiolako parrokoa). Eta bestetik, pilotariak, Iñaki San Migel eta Jesus Garciaetxabe.

Argazki honen jabea, Jose Mari Arkauz, Mikel Etxebarriaren eliz



mutila zen, eta jakina, hark irabaztea gura zuen. Edozelan ere, abadeek ez zuten irabazi; are gehiago, egur ederra hartu zuten. Hauxe izan zen emaitza: Etxebarria eta Aranburu abadeek 6, Carciaetxabek eta San Migelek 22.

Norgehiagoka Aretxabaletako frontoi zaharrean jokatu zuten. Gaur

egun desagertuta dago, baina haren lekuan beste pilotaleku bat egin zuten orain dela urte batzuk: Iturrigorrikoa.

Pilota partiduan, Jose Mari Arkauzen esanetan, ez zen agiriko posturirik egin. Hala ere, binakako partiduak sekulako ikusmina sortu zuten herrian, eta jende ugari hurrera-


tu zen frontoira. Beste bitxikeria bat pilotarien jantziak izan ziren: mutil gazteek zuriz jokatu zuten, gerriko eta guzti; abadeek, ordea, ez zuten eguneroko abitua armairuan utzi.

Argazkia: Jose Mari Arkauz

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Aretxabaleta Institutuko aurreko aldea

Aretxabaleta Institutuko ikasleek, orain dela hamar urte baino gehiago, zelai zabal eta berdea zuten eskola aurrean. Gaur egun, berriz, leku hori Ederlaneko lantoki erraldoiak hartu du. Orain dela zortzi bat urte egin zituzten Markoleko zelaian lantokia eta aparkalekuak. Zelaiaz gainera, Markoleko baserri zaharra ere orduantxe desagertu zen gunehartatik.



≈ 1990

Institutuko eraikinak itxura berberarekin jarraitzen du gaur egun ere. Pareko zelaia, aldiz, desagertuta dago dagoeneko.



2002

Lantokia eta aparkalekuak egin zituztenean, errepideak eta urbanizazio lanak ere egin zituzten Aretxabaleta Institutuko aurreko aldean.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 12a / 75. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com

Arana kaleko etxeak bota ondoren, itxura guztiz berria du herriko erdialdeak

AINTZANE GARDOKI

Udaletxea zaharbertzeko lanak, noranzko aldaketak, etxebizitza berriak, eta abar. Aldaketa ugari gertatzen ari dira aspaldian herrian. Oraingoan, erdialdeari tokatu zaio txanda. Oporretatik bueltan, batek baino gehiagok ezustea hartu du Arana kalean.

Aspaldian herriaren itxura aldatzen ari dela esaten badugu, ez dugu ezer berririk esaten, horren lekuko dira eta herritarren eguneroko joan-etorriak. Udaletxea zaharbertzen hasi ziren duela hilabete batzuk, etxe ugari hasi dira egiten eta beste batzuk zaharbertzen, liburutegiko lanak ere hastear daude, herriko hainbat auzotan ere urbanizazio lanak egiten ari dira...

ERDIALDEAREN ITXURA ALDAKETA

Apirileko lehenengo astean, Arana kaleari tokatu zitzaion txanda; izan ere, kalea autoendako itxi eta Jose Arana eskola zaharretarainoko etxe-ilara guztia bota dute. Hantxe, 43 etxebizitza egingo dituzte: 11, ekimen pribatukoak, eta beste 32ak kooperatibak



Itxuraldaketa handia izan du Arana kaleak.

izango dira. Udaleko aparejadore Natalia Ruak zera adierazi zigun: "Eraikinak botata, astean barrena autoei bidea guztiz zabalduko zaie. Autobusendako, aldiz,

zabalik egon da Arana kalea." Etxe zaharrak botata, orain, lehenengo lana Bolibarko bidea desbideratzea izango da. "Erdialdeko kaleak noranzko bakarrarekin



AMAGOIA LASAGABASTER/AINTZANE GARDOKI

jarraitu beharko du luzaroan, urtebete, gutxienez; baina eraikin zaharrak botatzeko lanak amaituta, egoera normalizatu egingo da laster. Etxeak eraikitzen hasi

aurretik, Bolibarko bidea desbideratzeko lanak egin behar dira, eta gero hasiko dira etxebizitza berriak egiten", gaineratu zigun Natalia Rua aparejadoreak.

HERRITARREN HITZA / Ibon Segura

Gaurko umeak

Eguraldia lagun dugun udaberriko egun hauetan, arratsaldean herrian gora eta behera nabilen bakoitzean ume garaiak datozkit burura.

Ez dakit orain herrian gehiago nabilelako edo arreta gehiago jartzen diodalako den, baina bizitasun handia ikusten diot Eskoriatzako plaza eta inguruei, aspaldi ikusten ez nion bizitasuna.

Alde batetik, ume txikiak, gurusoak, aiton-amonak zein zaintzaileak inguruan berrikeratzen, eta noizean behin, hauek egiten dizkieten galdera xelebreei erantzuteko prest dituztela. Beste aldetik, nagu-

siagotxoak lagun artean, beraien arduraz inortxo egoteko beharrik ez dutela.

Baina fenomeno hau ez da herri erdian gertatzen soilik, ordea. Dorletako parkera, Aranburuzabalara edo Intxaurtxuetako "partxis"-era joanez gero ere gauza berbera baieztatu dezakegu.

Eta guzti horretatik gehien atsegin dudana gehienak JOLASEAN ikustea da.



"Bizitasun handia ikusten diot herriari"

Baloiak, panpinak, bizikletak eta abar nonahi ikusten dira. Harrapaketan, gorde-gordeka, lasterka edo besterik gabe lurrarekin jolasean dabilzan neska mutikoak ere asko dira. Lehengo batean, berak eginiko egurrezko arku eta geziez jolasten ikusi nuen mutiko bat aspaldi-ko partez. Badirudi irudimena ez dutela kalterako soilik gordeta utzi. Jolasa bizi izan zuten eragina ote?

Ordenagailua erabiltzen ez dakiena garai bateko irakurtzen eta idazten ez zekienaren parekoa izango dela dirudien XXI. mende honetan, haurren jolasak izugarrizko garrantzia edukiko duela iruditzen zait, txikitik bizitakoak eragin nabarmena baitu heldutakoaren izaerarengan.

Gaur jolas egiten duen haur belaunaldia, bihar gizarte orekatuago baten zutabea izango da.

Jolas daitezela, beraz, umeak ume diren artean, egunaren amaieran etxera zikinik edo urraturik gabe doan umea ez da ume-umea eta.

LABUR

Abarrategi eta Iriarte txapelkunak

Debarroko pilota txapelketako finalak jokatu ziren joan den asteburuan. Gazteen mailan Abarrategi eta Iriarte eskoriatzarrak izan ziren txapelkunak. Finalean Elgetako Balerdi eta Azagirrerren kontra 22 eta 9 nagusitu ziren. Osoko partidu polita eskaini omen zuten.

Kadeteetan, berriz, Axpek eta Azkaratek partidu gogorra jokatu zuten, baina azkenean elgoibartarrak 22 eta 20 irabazi zieten finalean. Zorionak bi bikoteei!

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde Ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

THE PUB IBILTARIA KONTZERTUAN

Seigarren urtez Oskorri taldeak The Pub Ibiltaria esperientzia martxan jarri du. Oskorriko partaideekin batera edozein instrumentu jo eta kantatu egiten duen publikoa da ekitaldiko protagonista nagusia.

Datorren maiatzaren 3an, 22:30ean, Kiroldegian izango da Oskorri bere Pub Ibiltariarekin. Beraien esanetan, errepertorioa osatzen duten kantuak parranda batean edo afalondoan lagun artean kantatzeko modukoak dira. Beraz, ordurarte baduzue entsegutzeko denbora.

AXTROKIRENAGENDA

DINAMIZATZAILEA HASI DA LANEAN DAGOENEO

Monika Arriaran hasi da dinamizatzaile lanetan. Lau orduz ibiliko da lanean, eta momentuz, izango duen helburu nagusia kultura plangintza egitea izango da.

ERRETRATUZAHARRA

Bonba mehatxua kiroldegian

Eskoriatzako kiroldegian bonba batek eztanda egingo zuela esanez dei bat jaso zuen joan den egubakoitzean Ertzaintzak.

Arratsaldeko seiak inguru izango ziren Ertzaintza kiroldegira heldu zenean. Kiroldegian zeuden pertsona guztiak kanpora atera zituzten ertzainek. Ertzaintza heldu zirenean, kiroldegian saskibaloiko nesken talde bi ari ziren entrenatzen. Igerilekuan ere, hango langileek azaldu digutenez, dozena bat lagun zegoen. Denborarik galdu barik, bainujantzia bakarrik soinean, igerilekuan



zegoen jendea eta entrenatzen ari ziren guztiak kanpora atera zituen Ertzaintzak.

Era berean, bidea moztu, eta inguruetako garajeetako sarrera-irteerak ere ezin izan

ziren erabili ordu betez. Ertzaintzak kiroldegiko txoko guztiak miatu zituen. Kanpoan ume batek ahaztutako motxila batek sortu ei zituen kezka handienak. Motxila

hura aztertu, eta ez zuten ezer susmagarririk aurkitu. Ondorioz, bidea ireki, eta kiroldegira sartzen utzi zieten kanpoan ordu betez egon ziren kirolariei.

HURRETIK/ Olatz Pagaldai · Gaztekantoiko begiralea

“Nire esku balego, herriko gazteekin Urbasara joan eta zuhaitz baten gainean txabola bat egingo nuke”

Olatz Pagaldai eskoriatzarra izango da, oraingo estetik aurrera, Gaztekantoiko begiralea. 22 urte ditu eta lau urtez Antzerkia ikasi du. Orain, herriko 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin bat egin gura du Olatzek.

Asteburuetan, aurrerantzean, ba ei duzu zer egin.

Lanean hasteko irrikan nago. Bihartik aurrera, zapatuero eta domekero, bostetatik aurrera herriko gaztetxoekin pasatuko ditut arratsaldeak.

Zer izango da Gaztekantoi? Gazteendako egindako toki bat. Agintariak gazteak eurak izango diren toki bat. Datozen bi hilabeteetarako, programa bat landu dugu. Hasteko, lokala ezagutu, gazteon gustuen

arabera apaindu, eta daukagun materiala ezagutzeko aukera izango dute gazteek. Mahaijoko ugari ditugu, jolas asko ere prestatu ditugu, baina hainbat jarduera ere sortuz joango gara gazteek eurek eskatzen didatenaren arabera.

Zeintzuk dira Gaztekantoiaren helburuak?

Gustuko dituzten ekintzetatik abiatuta, gazteendako aisialdia eskaintzea. Baina gura nuke beste alor batzuk ere jorratzea: adibidez, gazteon arteko harremanak, imajinazioa lantzeko joko pila bat ditut... Edozelan ere, batez ere, herriko gazteak motibatu gura ditut.

Zelan motibatuko dituzu?

Haiengandik hurbil egonda, harreman zuzena izanda eta zer gura duten jakinda.



Askotan gazteek, haiendako ezer ez dagoela-eta, protesta- ra jotzen dute.

Bai, horrela da, denok egin dugu protesta, eta askotan paso eginez, hau “kaka bat da” esanda, ez dugu ezer egiten. Eta gazteek jakin behar dute euren kabuz ere has daitezkeela gauzak egiten. Dena ez dela grisa, udaberriak kolore asko ditu. Nik gustuko dituzten kolore horiek hartu, eta konbinatuta, gazteekin lanean hasi behar dut. Herria kolorez beteko dugu.

Aukera izanez gero, zer egingo zenuke herriko gazteekin gustura?

Urbasara joan eta zuhaitz baten gainean txabola bat egin, gura dugun guztietan hara joateko, eta gure gauzez aritzeko.

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA



bedardenda

Tfnoa.: 943 71 43 27
ESKORIATZA



Tfno 714345

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita
ESKORIATZA

Saharako Emakumeen Kongresuan parte hartu dute herriko hiru emakumek

AINTZANE GARDOKI

Saharako 27 de Febrero errefuxiatuen kanpamentua izan zuten jomuga Amaia Olabek, Edurne Elkorobarrutiak eta Mariatxen Arantzabalek. Euskal Herriko 140 emakume joan ziren Saharako emakumeek bost urtean behin egiten duten kongresura.

Emakundek Euskal Herriko udalei eta emakume taldeei egin zien gonbidapena Saharako emakumeek egingo zuten kongresuan parte hartzeko.

Maletak prestatu, abioia hartu, eta Amaiak, Edurnek eta Mariatxenek 27 de Febrero kanpamenturako bidaia egin zuten. Arrasateko eta Debako beste emakume bikin batera lehenak izan ziren hara heltzen. "Gu eguaztean irten ginen; beste guztiak, berriz, eguenean. Gaueko ordu batean heldu ginen kanpamentura, eta han, heldu eta berehala, ongietorria egin ziguten. Tea edanez goizeko bostak jo arte izan ginen gu hartu gintuen familiarekin berriketan", azaldu digu Amaia Olabek.



Saharako 27 de Febrero kanpamenduan lau egunez egon ziren beste emakume batzuekin Amaia, Edurne eta Mariatxen.

ZE BARRI?

"Tea edanez bostak jo arte egon ginen gu hartu gintuen familiarekin berriketan"

"Gure helburua izan da herriarekin bizitzea, Saharako herria hurrerotik ezagutzea"

"Hunkigarria izan zen, Saharako herriaren borroka luzeari abesten zioten umee"

SEIEHUN EMAKUME KONGRESUAN

Mundu osotik joandako emakumeek parte hartu zuten kongresuan. Kubako, AEBetako, Kolonbiako, Mexikoko, Brasilgo, Hego Afrikako, Libiako, Aljeriako eta beste herrialde askotako emakumeak batu ziren han; denera, 600 emakume. "Bost urtean behin

egiten dute Saharako emakumeek kongresua. Kongresuan aztertzen dute zein den egungo egoera eta zein helburu finkatu behar dituzten datozen urteetarako. Gu kongresuan izan gara, baina gure helburua izan da herriarekin bizi-

ztea, Saharako herria hurrerotik ezagutzea; izan ere, kongresua Saharako emakumeek euren antolatuak zerbitu da".

Hiru gatzagarrok esan digute oso esperientzia aberatsa izan dela, baina era berean, oso gogo-

rra. "Hunkigarria, oso hunkigarria izan da. Kongresua inauguratu zuteneko ekitaldia sekulakoa izan zen: denak abesten, negarrez, hango irrintzi bereziaren oihartzunak nonahi... Saharako herriaren borroka luzeari abesten zio-

ten umee. Hunkigarria. Eta haiekin bizitzea? Zer esan? Laster ahaztu egingo dugu, baina ditugun gauzak baloratzeko ikastaldi ederra jaso dugu han; jarraituko dugu horretaz hizketan", esan digu Amaiak.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

SAJON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

Villar
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

FAGOR



**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

Aitzorrotz elektronika
Alboka gazte moda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Herrasti akeita etxea
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
L-10 ileapaindegia
Larrad ileapaindegia
Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz drogeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Xume oihal denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak



UDABERRIKO ZOZKETA!

150 EUROKO SARI BAT ETA 60KO ZORTZI SARI!

Aretxartek bedetatzi erosketa-txartel zozketatuko ditu gurean erosketak egiten dituztenen artean.
Zozketa ekainaren 4an egingo dugu! Hartu parte!



ERIKO JAKINAREN ITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATUEN ITZA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
EL TIEMPO S.A. COMERCIO Y TURISMO

Gemes

Durana 40 ARETXABAETA Tel.: 943 79 99 18

edertze aretoa

TERMOESTIMULAZIOA teknika berria



Gorputzeko
tratamendua:

- zelulitisaren aurkakoa
- loditasuna
- zirkulazio arazoak
- lasaigarria
- drenajea
- reafirmatzailea
- erditze ondokoa

Udaberrira begira zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz.
- ✓ Dekolorazioa
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Dieta pertsonalizatuak
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a

ORLY

TABERNA BERRIA

LASTER
ZABALIK

HERRIKO PLAZAN



ZATOZ!